



2016KO APIRILAREN 22KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko apirilaren hogeita bian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratu-tako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrari alkatetzaren ebazpen bidez onartutako ebazpen baten berri ematen zaio, San Prudentzio jaien antolaketara egiteko hainbat herritar eta taldeei diru aurrerapenak hain zuzen ere.

Tokiko Gobernu batzarra jakinaren gainean gelditzen da.

I.- AURREKO AKTA.-

Jarraian, bertaraturakoen onspenera aurkezten da 2016ko apirilaren 8an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2016ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 21 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, BERROGEITA BI MILA BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA BEDERATZI EURO ETA BERROGEITA HAMALAU ZENTIMO (42.949,54 €)takoa onartzea erabakitzen da.

III.- KIROLDEGIKO BEHE SOLAIRUKO ALDAGELAK BERMOLDATZEKO LANEN 1. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Joxemiel Barandiaran Kiroldegiko Behe Solairuko Aldagelak Birmoldatzeko Proiektuaren egikaritze lanen obra zuzendaritza daramaten udal teknikariek, lan hauen lehen obra egiaztatzea luzatu dute. Lehen obra egiaztatze honen zenbatekoa, guztira, HOGEITA BEDERATZI MILA SEIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI EURO ETA HIRUROGEITA SEI ZENTIMO (29.672,66 €) da.

Lan hauek Barandiaran Zeramikak S.L. ari da burutzen.

Tokiko Gobernu batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, obra egiaztatze hau onartzea erabakitzen du.

IV.- GALDERA ETA ERREGUAK.-



Aran zinegotziak (EH Bildu) esaten du kalean aritzen diren udal langileek, beren lana egiterakoan, ingurua ondo seinaliztatu eta abarretan zer hobetua badagoela, eta hor-tan hobetu egin beharko litzatekela.

Alkateak erantzuten dio arrazoi guztia daukala.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak hamabi gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurta-tzen dudalarik.



[Handwritten signature in blue ink]